

Teatroaren memoria

Hamarkada batzuk barru izango dugu jakiterik zer antzerki mota egiten den egun Euskal Herrian? Nola egiten duten lan taldeek, nola barneratzen dituzten tradizioak beren sormen prozesuan? Teatroaren munduan egun egiten denaren inguruko dokumentazioa eta memoria baseak eskasak dira. Kontziente gara horretaz? Axola zaigu?

OIER GUILLAN

IAZKO LITERATURA ESKOLAN hitzordu aparta izan zen Mattin Irigoienek Antton Lukuren antzerkigintzari buruz eskaini zuena. Lerro hauek sinatzen dituen kronikariak ikusia zuen ordurako *Fauxto*, eta hasia zen *Euskal kultura?* liburua irakurtzen ere. Lehenago eskuratuak zituen *Maiatz* aldizkarian argitaratutako testuak: erreferentziaren bat bazuelakoan jo zuen eskolara. Bada, zur eta lur geratu zen Lukuren aurreko antzezlanen bideoak ikusita.

Hotel du frontonekoak bereziki inpaktanteak iruditu zitzaizkion, testu idatzian ez baitze-


goen dramaturgiari buruzko argibiderik: Noiz gertatu da hau? Non nengoen ni? Gazteegi nintzen akaso. Nola da posible euskaraz horrelako gauzak sortu izana eta ez edukitzea haiek nolabait asimilatzerik? Zer erakusten da antzerki eskoletan, edo eskoletan besterik gabe?

Ezagutzen al dugu benetan azken hamarkadatan euskal teatroan egin dena? Egin den hori egiteko zer bide urratu duten egileek? Hogei urte barru ikerlari dohakaberen batek euskal teatro garaikideari buruzko azterketa bat egin nahi izango





DANI BLANCO



GAITZERDI



Lau antzezetanetako irudiak orriotan: Antzerkiola Imaginarioaren *Mundopolski: erreboltaren ziaboga* ezkerrean; Gaitzerdiren *Decir lluvia y que llueva* goian; horren azpian *Tanttakaren Agur, Eire... agur*; eta eskuineko orrian *Maskaradaren Logalea zeukan ekilibristaren kasua*. Garai eta mota diferenteetako obrak denak, baina arazo berari aurre egin behar diotenak: denboraren joanari. Nola gorde antzezetan testuaz gain gainerako dramaturgia osoa?

balu nora joko luke? Hemeroteketara? Komunikabideetatik zirkuitu komertziale-tan estreinatzen diren antzezetan berri jaso liteke batik bat, baina haien kasuan ere sormen prozesuari buruzko argibide gutxirekin. Bestetik, Euskal Herriko teatroa ez da titularrei eta kultura agendei erreparatuta islatzen den errealitate bat soilik. Asko dira formatu txiki eta ertaineko zirkuitu aldakorretan urtez urte lanean ibili izan direnak, dabilzanak, mota guztietako arte eszenikoak landuz: teatro obra txikiak, bakarrizketak, irakurketa dramatizatuak, performanceak, errezitaldiak, behin bakarrik egiteko sortu diren muntaiak, dantza garaikideko piezak... Etiketak etiketa, izan amateurra, merkatuaren irizpideen arabera profesionala edo ia-profesionala, zer nolako lanak dira horiek? Zertaz hitz egiten da? Zelako euskararekin? Zer dramaturgia motarekin?

Borja Ruizek Gaitzerdi taldean eta Kabia izeneko laborategian egindako lanean sari izan ditu horrelako ideiak gogoetagai. "Antzerkiak testua ez den eremu handi bat

hartzen du eta hori dokumentatzen ez bada antzerki zati bat galtzen dela esan genezake". Ruizek Richard Schechner ikertzaileak egiten duen bereizketa ekartzen du gogora: "Idatzizko testua batetik eta 'performance text' delakoa bestetik, hitzarekin batera dramaturgia osoa biltzen duen ikuspegia, alegia. Ikertu nahi duten taldeek prozesuak artxibatzea ezinbestekoa da".

Non kokatu behar litzateke Antton Luku-ren *Euskal kultura?* liburua, kasu? Hogei urte barru *Fauxtoren* berri izateko ikus-entzunezko euskarria baliatu behar litzateke, testua eskuratuz gero haren osagarri, dramaturgiak sekulako indarra baitzuen antzezpenean. Kontraesan horiek gogoan, Lukuk aspaldi utzi zion teatro-testuak argitaratzeari. *Euskal kultura?* liburua ez da ari *Fauxtori* buruz modu hertsian batean, baina gakoa da antzezetan plantatzen dena osatzeko.

Beharrak

Euskaraz ikerketa ildoetara jarraituz edo esperimentazio prozesu bati erantzunez sortzen



diren proiektuak ezin esan dugu ugariak direnik, baina egon badaude. Oso gutxi dira ordea dokumentatuak aurkitzen ahal diren taldeen edo proiektuen sormen prozesuak. Memoria historikoaz gain sormen prozesu berriei begira zentzu praktikoa batean “erabilgarria” izan daitekeen dokumentazio mota legoke: aktoreek lantzeko ariketak, dramaturgia posiblei buruzko ereduak, teatro testuak, euskarazko antzerki terminologia komun bat...

Artezblai argitaletxeko kide Borja Relanok dioenez mugatuak dira Euskal Herriko

artxiiboak: “Esparru pribatuan, bakoitzak bere bizitzaren eremuko oroigarriekin bezala, antzezleek eta konpainiek gorde ohi dute materiala. Kontua da zelan. Karpetatxo batean inongo ordenu barik, argazkiak, salmenta-dossierrak, kritikak eta esku programak biltzen direla ikusi dugu. Guk dakigula ordea, ez dago Euskal Herrian lan hori esparru orokorrean egiten duenik, ez erakunde pribaturik, ez publikorik. Txotxongiloen kasuan, berriz, bada oso garrantzitsuak diren ekimen bi: Bilboko txotxongiloen dokumentazio zentroa eta Titirijai jaialdiaren inguruan sortutakoa, laster TOPIC nazioarteko txotxongilo zentroan kokatuko dena. Nonbait, ETBk ere bere irudi artxiboa izango du”. *Artez* aldizkariaren lanaren harira asko da gorde duten materiala. “Gure kasuan, eguneroko lana bideratzeko ezinbesteko materialak direnez, dossierrak, kritikak, testuak, esku programak eta argazkiak jaso, gorde eta artxibatu izan ditugu urteetan, inoiz Euskal Herriko antzerkiaren historia ulertzeko balioko dutelakoan edo. Material hori modu egokian gorde eta antolatzeke beharra behin baino gehiagotan aldarrikatu dugu erakunde publikoen aurrean, balizko Euskal Herriko antzerki dokumentazio zentro bati emateko prest gaude. Agian antzerki eskola berri horren proiektuan sar liteke...”

Gaitzertikoek beren ibilbidea hasi zutenean, beste askok bezala, autodidakta moduan ekin zioten lanari, gertuko erreferentzia nabarmenik gabe eta dokumentazioaren beharra nabaritu gabe. Ruizen esanetan 2006an Kabia laborategia sortu zutenean aldatu zen hori. “Ikerkuntzara begira dagoen proiektua izanik, dokumentazio behar nabaria daukagu. Gure ideia ez da ikuskizunak sortzea bakarrik, antzerkiak eskaintzen duen mundu oparo hori ikertzea eta teorizatzea baizik. Geure prozesuak artxibatzen eta hainbat dokumentu geureganatzen saiatzen gara:



baga-biga musika bulegoaren eskutik Mikel Urdangarin



DISKO BERRIA

beste konpainien bideoak, liburuak...”. Ruizek beren inguruan aintzat hartzeko moduko ekimenak sortu direla aipatzen du, Yorick liburudenda edo BAD jaialdia kasu, eta horietan lan prozesuaren eta ikerkuntzaren gaiek badute tartetik.

Dokumentazio eta erreferentzia praktikoan falta maila guztietan sumatzen da, baita eskolarteko proiektuetan eta ekimen herrikoi eta amateurretan ere. Joserra Fachadok Zurriola ikastolako antzerki eskola koordinatzen du: “Guretzat material didaktikoa euskaraz ez egotea akatsa da, baina erdaraz dagoena erabil dezakegu. Testuekin ordea ezin dugu hori egin. Guretzat testu falta da behar handiena”.

Fachado egun egonkortze bidean den Antzerkizale elkarteko kide ere bada. “Antzerkizale elkartean badaogo testuak biltzeaz arduratuko den batzorde bat: orain arte argitaratutakoak, argitaratu gabeen artean amateurrentzat baliagarriak izan daitezkeen talde profesionalen testuak, talde amateurrek egindako gidoi eta itzulpenak, antzerki tailer eta eskoletan egindakoak... Hori dena lokalizatu, bildu, euskarri informatikoan jarri, errepasatu, txukundu, eta bakoitzarekin fitxa bat egin: norentzat den egokia, pertsonaia kopurua...”.

Teknologia berrien erronka zaharrak

Egun badira teatroaren arloan egin litekeen artxibo eta memoria lanari begira interesgarriak eta erreferentzialak diren esperientziak. Armiarma webguneak kasu, literaturari egiten dion ekarpena itzela da, teatroaren arloan ere aintzat hartzekoa: *Antzerki* aldizkaria topa liteke sarean, testu klasikoak, eta bada Mikel Martinezek abiatutako www.teatro-testuak.com gune erreferentzialaren habia ere, besteak beste. Antzerkigintzan dabilzanek sarri baino sarriagotan aipatzen dute Martinezek egindako lanaren eredu: sarea erabili paperak garestitu egiten duen bilketa eta argitaratze lana egiteko, modu erraz batean denon eskura jartzeko. Relañok nabarmentzen duenez, Internet bide garrantzitsua da: “Gero eta material fisiko gutxiago erabiltzen dugu antzerkigintzan. Digitalak modu fisikoan dauden kopiak eta dokumentu digital berriak antolatatu beharko lituzke, eta material hori guztia Interneten eskaintzea oso ondo legoke”.

Interneten bilatzen hasiz gero, badira esperientzia propioetan oinarrituta hainbat lanen prozesuak biltzen dituzten guneak

ere. Ander Lipusek *Ispilu dramatiko*a blogean (www.artedrama.com/ispiludramatikoa) bere ibilbide osoan egindako proiektuen materiala bildu du. Horrekin batera, teorizazioa eta erreferentzia klasiko-garaikideei buruzko sarrerak egin ditu, euskaraz maila horretan dagoen hutsunea handia baita. Esperientzia propioetatik abiatu dira halaber Kabiaren blogean (www.kabiateatro.com).

Borja Ruizek *El arte del actor en el siglo XX* (Aktorearen artea XX. mendean) izeneko liburua kaleratu du berriki Artezblai argitaletxearen eskutik. “Ez nintzen eskola batera joan ikastera, eta horren ordez maisu handien liburuak irakurtzen hasi nintzen. Zailak iruditzen zitzaizkidan. Ez nekien nola eraman praktikara. Liburuarekin zailtasun hori samurrago egiten saiatu naiz. Bestalde, esan behar da, gaztelaniaz hutsunerik badago, euskaraz dena dela hutsa”.

Liburuaren aurkezpenak ikus-entzunezkoa eta teatro pieza laburrak hitzaldiarekin uztartzen dituen formatuan eskaini izan ditu euskaraz. “Liburua euskarara itzultzen ari gara, baina zein formatuan aterako dugun ez dakigu, erabat defizitarioa delako”. Liburua Artezblai antolatu

tu duen arte eszenikoen arloko ikerketa testu lehiaketaren bidetik argitaratu da. Relañok dioenez antzerki testu asko sortzen da urtero, baina etengabe eraldatzen den artea dela kontuan izanik, egintza beraren hausnarketa bultzatzea beharrezkoa zela iruditu zitzaien. Lehiaketa euskaraz aurkezteko zabalik dagoen arren, orain arteko bi deialdietan ez da euskarazko lan bakar bat ere aurkeztu.

Antzerkiaren memoria aipatzean Patri Urkizuk luzez egin duen lana etortzen ahal da gogora. Teknologiaren garaian bizi bagara ere, hutsuneak handiak dira: nola egingo dute lan etorkizuneko balizko ikertzaileek egun egiten dena ezagutzeko? Azkenaldian ugaritzen ari dira teatroa maite dutenen ahalginak eta ekimenak. Antzerkizale elkartearen sorrera, edo Artedramak bultzatutako ADEL bezalako topaguneak, Zarautzen *Brain-storming* eta Usurbilen *Topa eszenika* ekimenekin elkarlanean aritu izan direnak. Lulusoko Harri Xuri edo Lasierako Azala bezalako espazioak... Ikuskizuna, ikerketa eta esperimentazioa uztartzeko ekimenak dira denak. Merkatuari estuki loturiko profesionalaren ideia desmitifikatzen ari da agian? Bideak eta kontzeptuak berrasmatzeko gogo dago nonbait? Denborak esango du, baina oraingo, ez du denborak idatziko. ■

“Esparru pribatuan, bakoitzak bere bizitzaren eremuko oroigarriekin bezala, antzezleek eta konpainiek gorde ohi dute materiala. Guk dakigula ordea, ez dago Euskal Herrian lan hori esparru orokorrean egiten duenik”

Borja Relañó